# munduak guztiontzat beharko luke

## AGIPASE

Ane Pirata katiuskak erostera joan da. Putzutan ibiltzeko katiuskak behar ditu eta iazkoak oso txikiak geratu zaizkio. Patakon laguntzera joan zaio.







AITAREN ETXE BERRIA? EZ DUT ULERTZEN...
NIRE GURASOAK BANANDU EGIN DIRA ETA ORAIN AMA ETXE BATEAN BIZI DA ETA AITA, BESTE ETXE BATEAN.
ETA ZU, NON BIZI ZARA?
BATZUETAN AITAREKIN ETA BESTEETAN AMAREKIN. ORAIN BI ETXE DAUZKAT.
TIRA, HORRELA ENTZUNDA EZ DIRUDI TXARRA. ZU POZIK ZAUDE?
BAIETZ USTE DUT... GURE BIZITZA BERRI HONETARA OHITZEN ARI GARA AMA, AITA ETA HIRUROK.


ETA ZER GERTATU DA, ZURE AITA ETA AMA HASERRETU EGIN AL DIRA?
EZ NUKE HORRELA ESANGO. KONTURATU DIRA DAGOENEKO EZ DAUKATELA ELKARREKIN BIZITZEKO GOGORIK ETA PENTSATU DUTE BAKOITZA BERE ALDETIK BIZIZ GERO ZORIONTSUAGOAK IZANGO DIRELA.


ETA ZU ADOS AL ZAUDE?
HASIERAN ASKO HASERRETU NINTZEN, EZ NUEN EZER ULERTZEN, BAINA ORAIN KONTURATU NAIZ EGIA DELA, BANANDUTA DAUDENETIK, ZORIONTSUAGOAK DIRELA BIAK. ETA HORI DA GARRANTZITSUENA, EZTA?




AGIPASE

Agipase Gipuzkoako Guraso Bananduen Elkartea da. Irabazi asmorik gabeko elkartea da eta 1994. urtetik dago martxan.



Banaketaren aurretik eta ondoren sor daitezkeen arazo juridiko, psikologiko, pedagogiko eta sozialak konpontzea da Agipaseren helburua



**Zarategi pasealekua, 100, 20015 Donostia**
**Telefonoa: 943 29 22 49**
**E-posta: agipase@euskalnet.net**